

"ULUN-EK-MAYOO" TIK AGUR

Nik banekien, jakin, Mexico-ko indioak ez direla suntsitu, eta ez gutxiagorik ere. Leku askotan irakurria nuen Mexican badaudela oraindik 30 (edo 40) indio multzo, hizkuntzak eta guzti.

Matzlán-go hondartza «gringo-tuan» Pacifico aldera begira nengoelarik, halaz ere, halako zirrarak hausiki ninduen bapatean: gure aurretik pasa ziren bi saltzaileek guri ere beren salgaiak ingeles eskaini ondoren hizkuntza harrigarri batez ekin baitzieten beren elkar-hizketari.

—¿Qué hablan ustedes? galdetu genien, eta «zapoteco», berek erantzun. Caxaca-koak zirela azaldu ziguten; eta eskualde hartan, nahiz espáñolez gehienek jakin, zapotekoz «denak» mintzo direla esan ziguten. Mexican jende asko eta asko beltzarana oso izanik ere, Caxaca-tar haiek ez zuten izan, batere indio itzurarik.

Gero xehekiago jakin dudanez, zapoteco-tarrak 250.000 dira gaur. Badira Mexican otomi-tarrak (300.000 lagun), mixteca-tarra (200.000 lagun), hiriburu inguruko nahua-tarrak (700.000) eta abar. Bai, hala da.

Baina Yucatan-en aurkitzen dena beste maila batetako da, zinez. Yucatanen Merida-ko hiria kenduta (eta Merida «T-Ho» da mayaz), dena da maya: leku-izen zailak; emakumeen saia zurriak, kolore-marraz apainduak; palma-hostozko txabola bitxiak; aurpegi borobil ilunak, arkeologia bera, eta jendeen hizkuntza: dena da bat. Maya-tasuna nabarmen dago Yucatanen, eta egia idatzi du Mimenzak: el pueblo maya constituye una de las familias raciales más homogéneas del continente americano.

Uxmal zoragarriaren ondoko Muna-ko enparantzan barrena ibili naiz isilik azokako saltzaileei beha, eta ia denak entzun ditut mayaz ari: zaharrak eta gazteak. (Dena esan dezadan, eta bitxikeria bat kontatu nahirik, zelai batean dagoen muno bakarraren gainean dagoen herriskaren izena «Muna» irakurtzean, edozein euskaltzalek konpreni bide ditzake Astarloa eta antzekoak...).

Chichen-Itzá erakutsi zigun gidaria, espáñolez bezain aisa ingelesez ari, maya-tarra zen jatorriz, Merida-ko jende asko bezala; eta azaldu zigunez, maya izana zuen haurtzaroen bere ama-hizkuntza.

ingelesez eskaini ondoren hizkuntza harrigarri batez ekin baitzoidatzi du Mimenzak: «el pueblo maya constituye una de las fa-

Artikulu honetan pentsatuz, «Gora Maya-tarren herria» nola esaten den galdetu nion nik; baina haren erantzuna hauxe izan zen: «jamás he oído esa expresión, ni nada parecido, en maya...». Ezin da sinetsi ere mayatarren egoera. Mila liburutan laudatua, puskatu ezinean kolonizatzaileek zutik utzi zituzten harrizko hiri ederretan gordirik, maya-tarren zibilizazioa hila den herri baten antzera presentatzen da gaur Yucatanen. Sumerioen eta Etruscoen mundu itzalian antzera. «Luz y Sonido» ikuskari hungigarrian, Uxmal-en, gauza bera, nahiz han kantu batzuk bederen mayaz kantaturik eman. Eta hori Mexican, America guztian gobernurik «indigenistenaren» menpean, omen.


Hots, maya-tarrak, «Ulun-ek-mayoo» delakoa (=«tierra de los mayas», hitzez hitz, gidariak azaldu zuenez), hantxe bizi dira gaur. Uxmal-en eta Chichen-Itza-ren eraikitzaileen haurrideak dira haiek.

2.300.000 maya bizi dira gaur Mexica-ko alderdian. Denak miseria gorrian, goitik behera ukatuak: ekonomian, politikan eta kulturari (eskolako lehen urtea mayaz egiten denean ere. «integrazioa» errazaio egiteko besterik ez). Yucatan go probintzian, ordea, % 74,47 dira mayatarrak; % 44,15 Campeche-koan, eta % 42,94 Quintana Roo-koan; eta gitxiago Chiapas-en (Palenque inguruetan ez da iadanik mayaz hitzegiten) eta Tabascon.

Nola jakin, ordea, mayatarrak ez direla etruskoen anaia bixiak? Zeren eta Diaz Bolio-ren iritzi «el ejemplo de la mayor pureza del idioma maya se da hoy en Valladolid» (ez naiz txantxetan ari, Valladolid-en beraz! Baina nork ote dakike Yucatan-go «vallisoleitano» horiek «Zaci» deitzen diotela beren sorterriri, eta «Valladolid» hori administrazioak darabilela eta ez beste inork?

Ez hori bakarrik, Belice, Guatemala eta Honduras-ko erresuma hauzoetan ere, badao mayatarrik erruz, «quiché» dialektok mintzo. «Milloi pare bat» esan didatenez Ezen hizkuntzalariek sei dialektu berezten dituzte mayatarren herrialdean: maya bera, huasteca, quiché, tzental, pokomchi eta mame.

In Guatemala-ko eta Mexicoko mayatarrek elkar ulertzen ote duten galdetu dut, eta baietz erantzun didate ziolo, nahiz life-erentzia batzuk izan. Eta Muna-ko mayatar gazte batek azalpen



Chichén-Itza: suge lumatuaren burua; eta atzekaldean Jaguarren aldea

zehatz hau eman dit: Nola dezu izena galdetzeko, esate baterako, «bikiria khaba» esaten dela Guatemalan, eta «bixia khaba», berriz Mexicoko probintzietan.

Baina Uxmal, Chichen Itza, Dzibilchaltun, Palenque, Tulum, Kabah harrigarriak erakusten duten mayatarrek berek ez dakite gaur «aurrera gure herria» nola esan ote litekeen ere!

Mayatarrak piztuko badira, maila guztietan batera dira piztuko. Eta hauxe nekez somatzen da Tropicoko sargori hartan. Baina nik ez dut dudarik batere egiten: mendeetan barrena mayatarrei espáñatarrek debekatu zuten Chichen Itza-ren arima piztuko da, eta mayatar harrigarriak beren buruaz jabetuko dira. Greziarrek, luzaroan menderaturik egon ondoren, piztu ziren bezala. Agian laister.

LARRESORO

Xedea

Eskuina eta ezkerria

Gure erriko pelotariak, ezker-eskuinarekin jokatzeko gaitasun bila ibiltzen dira.

Onurakorragea bait da.

Hala, eskuma-ezkerti edo ezker-eskumati izatera iritxi eta bi eskuetara joketzen dakien kontrarioaren aurrean eskuin edo ezker utsarekin joketzen jartzeak arrokeria edo inozakeria salatzen du.

Baina eman dezagun orain, norbaitek kasketaldi bat duela.

Ondorea bere gain badoa, hontarako askatasuna badu, noski; baina erri osoaren zoria berarekin daraman jokaldi batean bada, ezin dugu erri osoa esku bat lotuta bizia jokatzeko jarri.

Pelotan bezala, politikan ere.

Noski, gure erriak osatzen duen ekipoen ez dugu tongo egingo duen ezkerreko nahiz eskuiko inor nahi; gure aurka jokatzeko, nahikoak ditugu aurrez-aurre ditugun aretarioak.

Eta, badakit: mozorro-sorgin asko da gero egitazkoa gertatzen dena.

Bada zer kontuan izan, bai. Baina, xinplifikatzeak lana errazten diolako edo honetarako grina batek bultzatzen diolako, sorgin-ehizean jartzen denak berak sortuko ditu apika irudimeneko sorgin kaltegarrienak.

Eragin hau nabarmen-egazuna da sikologi eta soziologi alorretan non nahi.

Gure erriko sorginak, gainera, elkar-urruti dauden gauzei ere deitura emateko aldakioak ditugu: baratxuri mota bat bereizteko (sorgin-baratxuria), pinpilinpauza mota bat (sorgin-bitxia) izentatzerainokoa.

Aukera-tarte ikaragarria!

Honetxegatik uste dut nik, sorginkeria beraren eragina duen ehiza heldurti batean asten dena, perlesiak jota bezala gertatzeko arrixkua duela.

MARTIN UGALDE